



Arartekoaren Ebazpena, 2013ko maiatzaren 31koa. Honen bidez, Erandioko Udalari gomendatzen zaio har ditzala bidezko neurriak (...) pub tabernak eta herriko jaietan pubaren inguruetan ipintzen den plataformak eragozpen gehiagorik sor ez dezaten.

Aurrekariak

1. Erandioko hainbat bizilagunek berriro salatu dituzte erakunde honetan (...) pubaren jardueraren etengabeko irregulartasunen ondorioz jasaten dituzten zarata-eragozpen larriak.

Interesdunek, batetik, adierazi dute ez daudela inola ere ados Erandioko Udalaren jardunik ezarekin, ez baititu behin betiko zuzendu **lokaleko** musika-ekipamenduak ozonegi jartzearen ondorioz **sortutako eragozpenak**. Horrez gain, kezkaturik agertu dira ixteko ordutegia behin eta berriz betetzen ez delako eta etengabe uzten direlako lokaleko atek eta atzeko leihoa zabalik, are gaueko ordutegian.

Bestalde, adierazi dute, hasiera batean, lokalaren atzeko aldean, eraikineko fatxadaren ondoan, **agertoki** bat ipini zutela, pubaren leihoaren parean ainguratuta. Agertoki hori, aldi berean, plataforma gisa eta kanpoko terraza aldera irteteko bide gisa erabiltzen zuten, bai bezeroek eta bai pubeko pertsonalak. Adierazi dutenez, plataforma hori eraikineko leihoari loturik zegoen, eta, beraz, lokalerako sarbide gisa erabiltzen zen, nahiz eta bazen erabilera horretarako sarbide nagusi bat, arautua eta normalizatua (bi ate, gutxieneko neurriak, eta abar). Baieztatu dute, jabeen erkidegoak agertu zuen eragozpenaren ondorioz, Udalak, itxuraz, ezeztatu egin zuela eskailera hori ipintzeko baimena.

Alabaina, argudiatu dutenez, nahiz eta baimena kendu zioten sortzen zituen eragozpen larrien ondorioz, Udalak baimena eman zuen, behin-behingo, herriko jaietan **8 bat metro koadroko beste plataforma** bat instalatzeko. Plataforma horrek, dirudienez, sartzeko bere eskailerak zituen. Gainera, azpimarratu dute jaiak amaitu ondorenean ere plataforma hilabeteetan egoten zela instalaturik, eta zarata-eragozpen larriak eragiten zituela.

Azkenik, aipatu dute **lokalaren kanpoko terrazak**, haur-parkearen ondoan jartzen denak, ez dituela betetzen herrian terrazak eta mahai hankabakarrak instalatzeko udal ordenantzan ezarritako betekizunak.

2. Jarduera horrekin loturiko irregulartasunen harira, nabarmendu behar da erakunde honek gestio ugari sustatu dituela bi kexa-espedienteetan (hurrenez hurren, 1285/2007/28 eta 1666/2010/2 zenbakikoak).
3. 1285/2007/28 erreferentzia-zenbakiarekin izapidetutako lehenengo espedienteetan, egiaztatu genuen hain zuzen ere jarduera horrek badituela **arauzko lizentziak**, bai **instalazioarena**, 584/2007 zenbakiko alkatetzako





dekretuaren bidez emana, eta bai **irekitzekoa**, 2007ko uztailaren 25eko 1956/2007 Dekretuaren bidez emana.

Udalean jasotako lehenengo salaketak ikusirik, nahiz eta jarduerak itxuraz betetzen dituen bere kalifikazio-txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak, udal teknikariek **2007ko maiatzaren 17an, ireki aurretik, arauzko ikuskapen-bisita** egin zuten, eta bisitan hartan, hainbat gabezia hauteman zituzten, musika-ekipamenduek sortzen zuten gehiegizko soinuarekin loturikoak. Horregatik, jardueraren arduradunek erabaki zuten beren ekipamenduen ainguraketa 90 dB(A)-tik 86 dB(A)-ra jaistera, sor zitezkeen eragozpenak saihesteko.

Edonola ere, zona horretako bizilagunek erreklamazio berriak jarri zituztela eta, Erandioko Udalak (...) enpresa kontratatu zuen, bidezko neurketak egin zitzaizkion, Udalak halako neurketak egiteko beharrezko baliabide teknikoak ez zituzten.

Proba horietan lortutako emaitzatik ondorioztatzen da jarduerak baduela **isolamendu akustiko bat, 70 dB(A)-koa**, eta, ondorioz, **betetzen** duela kalifikazio-txostenean ezarritakoa. Gainera, proba horietatik ondorioztatzen denez, *"los niveles sonoros de la música se perciben pero no superan el ruido de fondo, por lo que no se ha efectuado la corrección por la contribución de ruido de fondo por ser la diferencia entre el ruido de fondo y los niveles medidos menor de 3 dB(A)."*

Alabaina, inguruko bizilagunek zaratagatiko salaketak jartzen jarraitzen zutelako eta, Udalak jakinarazi zigun berriro kontratatu zuela neurketak egiteaz arduratzen den enpresa, beste proba batzuk egin zitzaizkion, arazoa zehazki nondik zetorren ikusteko, eta, lortutako emaitzak oinarritzat hartuz, sortutako arazoari irtenbide eraginkor bat emateko.

Azkenik, jaso dugun lehen udal txostenean ikusten da, oraingoz, **ez dela zehatzeko espedienterik abiarazi ixteko ordutegia ez betetzeagatik, ez eta beste ezein arrazoiengatik ere.**

Erandioko Udalak emandako informazioa kontuan hartuta, ondorioztatzen da genuen, hasiera batean ikusten bazen ere musika-ekipamenduek gehiegizko zarata ateratzen zutelako, musika-ekipamenduek gehienez lor zezaketen maila gutxitu zenez, horrekin konponduta geratuko zela zarataren arazoa, eta eten egin genuen lehen espedientean hasi genuen esku-hartzea.

- Alabaina, hilabete gutxi batzuk geroago, interesdunak berriro jarri ziren harremanetan erakunde honekin, eta berriro adierazi zuten **aipaturiko pubak zarata-eragozpenak** sortzen zizkiela. Hala ere, oraingoan, honako hau salatu zuten: **lokalaren kanpoaldean instalatutako plataformarekin** loturiko beste era bateko **gabeziak, terrazen funtzionamendu irregularra, lokaleko ate eta leihoen erabilera desegokia, etengabe irekita edukitzen baitituzte, eta abar.**





Arartekoak erabaki zuen beste espediente bat izapidetzea, oraingoan **1666/2010/28 erreferentziako zenbakiarekin**, eta beste gestio batzuk egitea Erandioko Udalarekin, jardueraren funtzionamendu egokia bermatzeko azkenekoz zer kontrol eta ikuskapen egin zituen jakiteko, eta, aldi berean, bizilagun kaltetuek planteatutako gainerako alderdiak kontrastatzeko.

Horren inguruan, adierazi behar dugu erakunde honek, jarduketa ugari sustatu arren, ez zuela esanbidezko erantzunik jaso Udal horretatik, eta, ondorioz, **Arartekoaren 2012ko ekainaren 7ko Ebazpena** eman genuela, **Erandioko Udalak (...) pubetik eratorritako irregulartasunen salaketen aurrean ez zuelako ez erantzun eta ez jardun.**

5. Gure gomendioan azaldutakoa onarturik, Erandioko Udalak aipaturiko jarduerari buruzko espediente administratiboa helarazi zigun, eta, horrekin batera, alkatetzak berak izenpeturiko txosten gehigarria, tokiko erakundeak 2008az geroztik egindako kontrol eta ikuskapen jarduketak zehazten zituen.

Jaso dugun dokumentazio zabalaren bidez, kexaren zio den arazoarekin loturiko alderdi ugari egiaztatu ditugu, eta horiek jarraian laburtzen saiatuko gara.

6. Lehenik eta behin, ikusten dugu, 2008ko urtarrilaren 4an, beste kexa bat sartu zela udalean, lokaleko musikak ateratzen zuen zaratarengatik.

Lehenago ere adierazi dugun bezala, Udalak enpresa bat kontratatu zuen udalerriko hainbat lokaletan soinu-egiaztapenak egiteko, batez ere aurrez zaratagatik salatu ziren jardueretan, besteak beste (...) pubean.

Beraz, **2008ko maiatzaren 19ko Alkatetzako dekretuaren bidez**, bizilagun salaketa-jartzaileekin adostu zen jardueraren ondorioz zarata-eragozpenak sortzen zirenean haiek jarriko zirela zuzenean harremanetan neurketak egiteko ardura zuen enpresarekin, teknikariak une horretantxe joan zitezten etxebizitza kaltetuetara eta bidezko probak egin ahal zituzaten, beharrezkoa izanez gero gaez.

Alabaina, eskura dugun udal dokumentazioan ageri denez, salaketa-jartzaileek ez dituzte erabili beren eskura jarritako baliabideak. Beraz, **2008ko uztailaren 1eko udal ebazpenaren bidez**, erabaki zen lokal horretan egin beharreko probak beste establezimendu batzuetan egitea, itxuraz salaketak gehiago zeuzkatelako. Interesdunei horren berri eman zitzaion.

7. Ondoren, **2008ko otsailaren 8an, herriko jaietan zehar**, beste erreklamazio batzuk sartu zituzten udaletxean. Horien bidez, eskatu zuten **lokaleko leihoa** itxi zedila, musika-ekipamenduen eragozpenak gutxitzeko, eta eraikineko fatxadaren ondoan kokatutako agertokia desmunta zedila; horrez gain, adierazi zuten lokaleko terrazak ez zituela betetzen udal ordenantzan ezarritako betekizunak.





Jasotako erreklamazioen ondorio gisa, **jaiak igaro ondoren, 2008ko abuztuaren 17an**, udal txostena bidali zitzaion lokalaren titularrari, bizilagun kaltetuei eragozpenik ez sortzeko bidezko neurriak ezar zitzaizkien eskatzeko. Interesdunari entzunaldia eskaini zitzaion, eta 10 eguneko epea eman zitzaion bidezko alegazioak aurkez zitzaizkien.

Lokalaren arduradunak adierazi zuen plataforma hori (...) Jai Batzordeak ipini zuela hainbat jarduera egiteko, hala nola karaokea eta mus-txapelketa antolatzeko. Horregatik, Udalak baimena eman zuen jaietan plataforma hori instalatzeko, 2008ko abuztuaren 1etik 10era. Adierazi zuen soilik lokaleko soinu-ekipamenduak erabiltzen zituztela jarduera horiek girotzeko.

Alabaina, Udalak ez zuen eskatu instalazio hori kentzeko jaiak amaitu arte, eta ez zuen neurririk hartu lokaleko musikak eragiten zituen eragozpenak gutxitzeko.

8. 2008ko azaroan, kexa gehiago aurkeztu zituzten udalean, lokalean gauez jartzen zen musikaren ondorioz.

Udaltzaingoa bertaratu, eta **musika-ekipamenduen bolumena gutxitzeko** eskatu zuen, **gehiegizkoa zela iritzita**.

9. **2009. urtean**, bizilagun kaltetuen kexek ez zuten etenik izan, batez ere musika ozonagi jartzen zelako eta ixteko ordutegia behin eta berriz betetzen ez zelako.

Eskura ditugun datuetan ikusi dugunez, jarritako salaketa etengabeen ondorioz Udaltzaingoa hainbat kontrol egin zituen gauez, eta kontrol horietan **egiaztaturik geratu zen musikaren bolumena, oro har, baimendutakotik gorakoa zela**. Kasu horietan, Udaltzaingoa lokalaren arduradunari jasotako kexen berri eman zien, eta **musikaren bolumena jaisteko eskatu zien**.

Ixteko ordutegia ez betetzeari dagokionez, helarazitako txostenetan ikusten dugu egindako ikuskapenetan inoiz edo behin jarduera baimendutako ordutegiari lotu izan zaiola, pub lizentzia duenez —hirugarren kategoria— edo tokiko erakundeak ixteko ordutegia luzatzeko baimena duelako —inauterietako larunbatean, esaterako—, baina, **kasurik gehienetan, jarduerak ezarritako ordutegia gainditu duela**. Areago, Udaltzaingoa behin baino gehiagotan egiaztatu du jarduera itxita dagoelarik ere jendea barruan gelditzen dela musika entzuten.

Ez-betetze horiek ikusirik, Udaltzaingoa lokala husteko agindu besterik ez du egin. Baina ez du neurri murriztaileagorik ezarri edo zehatzeko espedienterik abiarazi halakorik berriro ez gertatzeko.

10. Guztiarekin, bizilagunek salaketak jartzen jarraitu zuten musika-ekipamenduen soinu-mailarengatik, eta, hala, **2009ko abenduaren 30eko alkatetzako**





dekretuaren bidez, Udalak ostera kontratatu zuen soinu-egiaztapenak egiteko enpresa, berriro ere neurketak egin zitzaizkion lokaletan, horien artean (...) pubean, eta berriro eskaini ziren bizilagun kaltetuei enpresa horretako arduradunekin harremanetan jartzeko aukera, lokal horrekin loturiko zarata-eragozpenak pairatzen zituztenean.

11. Aurreko aldian gertatu bezalaxe, **2009ko uztailaren 7an**, ostera aldatu zen proba horiek egiteko ardura zuen enpresarekin sinaturiko kontratua, eta Beltzez puberako aurreikusitako neurketa beste lokal batera aldatu zuten. Izan ere, udal txostenetan adierazten denez: *"en los meses transcurridos el técnico de (...) no recibe ninguna llamada de los denunciantes para realizar la medición."*

Aldiz, eskura ditugun datuen bidez egiaztatu den bezala, hilabete horietan, bizilagun kaltetuek erreklamazio ugari jarri zituzten udalean, eta, ondorioz, tokiko erakundea jakitun zen zaraten arazoa ez zela konpondu.

12. **2009ko abuztuaren**, bizilagunek berriro ere beren desadostasuna agertu zuten **jaiak ospatzeko berriro ere plataforma edo agertokia jarri zutelako eta terrazaren funtzionamendua irregularra zelako**. Gainera, **azpimarratu** zuten **lokaleko musikak** eragozpen larriak sortzen zituela **leihoak une oro irekita uzten zirelako, eta kanpoko terrazan irregulartasunak zeudela**.

Berriro ere, Erandioko Udalak, jaiak amaitutakoan, zehazki **2009ko abuztuaren 20an**, idazki bat bidali zion lokalaren titularrari, jasotako kexen berri emateko, eta, ondorioz, plataforma hori ken zezala eskatzeko.

Jardueraren titularrak, bestalde, alegazioak aurkeztu zituen berriro, eta azpimarratu zuen jaietako batzordea arduratzen zela plataforma hori plazan jartzeaz, bere lokalaren atzeko fatxada aldera, (...) jaietan mus-txapelketa eta karaokea han antolatzen zirenez, **eta establezimenduak lokaleko musikarekin laguntzen zuela**. Horren froga gisa, Jai Batzordearen idazkia erantsi zuen. Bertan, hain zuzen ere, hauxe adierazten zen: *"los días 8 y 9 agosto del 2009 se organizó en la plaza un acto de Karaoke. Que el encargado de contratar un escenario o tarima para la realización de dicho evento es la comisión de fiestas, mientras el local se ocupa del equipo de sonido y de los premios."*

13. Erreklamazio horiei erantzuteko, Erandioko Udalak, **2009ko irailaren 22an**, Udaltzaingoari ohartarazi zion lokalaren funtzionamendu zuzena kontrolatu behar zuela, eta, bereziki, zaindu behar zuela lokalaren kanpoaldean instalatutako plataformak betetzen zituela arauzko baimenean ezarritako betekizunak.
14. **2010eko ekainaren 23an**, bizilagunek ia egoera berbera salatu zuten berriro, eta eskatu zuten, aurreko urteetan gertatutakoak kontuan hartuta, hurrengo jaietan Udalak ez zezala eman plataforma hori jartzeko baimenik.





2010eko ekainaren 28an, Udaltzaingoak txosten bat bidali zuen, une horretan plataformarik ez zegoela ziurtatzeko. Dena dela, honako hau adierazi zuen: *"es cierto que durante un tiempo el citado establecimiento tuvo colocadas unas escaleras para comunicar el local en su parte trasera con el parque infantil, pero que las mismas habían sido retiradas al poco tiempo."*

Hala eta guztiz ere, egiaztatu genuen **2010. urtean Erandioko Udalak berriro eman zuela arauzko baimena abuztuko jaietan plataforma hori jartzeko.**

15. Jaiak igaro ondoren, **2010eko abuztuaren 17an**, berriro ere lokalaren titularrari egun horietan, ia arrazoi berberengatik, udalean jarritako salaketa guztien berri eman zitzaion. Eta, beste behin, erantzuleei gogorarazi zien izandako gabeziak zuzendu behar zituztela.

16. Gauza bera gertatu zen 2011. urtean ere. Orduko hartan gauza berri aipagarri bakarra izan zen, aurreko urteetan bizilagun kaltetuak behin eta berriz aurka agertu zirela eta, Hirigintza Saileko Ataleko buruak sinaturiko 2011ko abuztuaren 18ko udal txostenaren bidez, berariaz honako hau adierazi zela: ***"Consultados archivos municipales dicha plataforma no dispone de la preceptiva licencia municipal para su instalación. Si bien dispone de licencia para la instalar de terraza conforme a las condiciones que se detallan en el plano y el decreto de Alcaldía nº1145/2011, de 17 de junio."***

Alabaina, plataforma leku berean ipini zuten berriz ere, nahiz eta arauzko baimenik ez izan, eta jai guztietan utzi zen han; hala ere, tokiko entitateak ez zuten neurririk hartu horren inguruan.

17. Gainera, **2011ko abuztuaren 11n** egindako ikuskapenean, egiaztaturik geratu zen kanpoko terraza ez zegoela kokatuta emandako baimenean adierazitako lekuan. Izan ere, adierazi zenez, ***"Por almacenaje de sillas en el exterior en el exterior del local y que el material de sillas es diferente a lo estipulado en la licencia concedida y con publicidad."***

18. Edonola ere, erakunde honentzat harrigarriena da Erandioko Udalak orduko hartan ez zuela eskatu plataforma hori kentzeko eta terrazan ikusitako gabeziak zuzentzeko, harik eta, **ia bi hilabete geroago, 2011ko urriaren 7ko 1764/2011 Alkatetzako Ebazpena** eman zuen arte.

Bitarte horretan ere ez zen zehatzeko bestelako neurririk hartu, ez eta ohartarazteko neurririk ere, bizilagun kaltetuei eragozpenik ez sortzeko.

19. **2012-2013. urteetan**, bizilagunek udalean erreklamazioak jartzen jarraitu dute, betiere antzeko arrazoiengatik, eta hainbatetan jarri dira erakunde honekin harremanetan, jasaten dituzten zarata-eragozpen larrien berri emateko.

Baieztatu dute Erandioko Udalean urte hauetan erreklamazio ugari jarri dituztela, eta hasieran, behinik behin, udal teknikariek egiten zituztela





ikuskapen batzuk. Baina adierazi dute pixkanaka-pixkanaka kontrol horiek nabarmen gutxitzen joan direla, ia desagertzeraino.

Era berean, kexaren sustatzaileek aurkeztutako argazkien bidez, egiaztatu dugu **hurrengo bi urteetan, bai 2011n eta bai 2012an, aipaturiko plataforma hori jarri zela. Nahiz eta, dirudenez, Udalak ez zuen jartzeko baimenik eman.**

20. Azkenik, nabarmendu behar da erreklamatzailak berriro adierazi dutela ez dutela beren salaketen esanbidezko erantzunik jaso. Hala, etsenplu modura, azpimarratu behar da udalean martxoaren 12an aurkeztutako azken erreklamazioaren bidez Udaltzaingoak bizilagun kaltetuen erreklamazioen ondoren egindako esku-hartzei buruzko aktak edota agiriak eskatu zirela, eta, horren harira, **martxoaren 14ko udal txostenaren bidez**, honako hau adierazi zela: ***“que esta jefatura de la policía local no facilita informes a particulares, si no es a través de despacho de abogado o compañía aseguradora , previo abono de correspondiente tasa.”***

Duela urte batzuetatik bizilagun erreklamatzailak izan dituzten gorabeherak erakusteko balio duen zerrenda luze honen ondoren, nahiz eta izapidetutako kexa-espediterearen aurrekariak ezinbestean laburtu behar izan ditugun, hona hemen gure

Oharbideak

1. Eskura ditugun datuen arabera, argi dago Udalak emandako argudioak ez direla inola ere aski udal erakunde horrek egin beharreko jarduketa eta jarraipena justifikatzeko. Hori guztia, xede honekin: egiaztatzea instalazio horrek behar bezala funtzionatzen duela, herriko jaiak behar bezala igaroko direla kontrolatzeko, batez ere plataformari dagokionez, eta, azkenik, nahiz eta ez garrantzi gutxiagokoa, bizilagun kaltetuei eragozpenik ez sortzeko.
2. Horren inguruan, argi utzi behar da aplikagarri den araudiak ez dituela bakarrik partikularrak behartzen araudia betetzera, baizik eta baita administrazioa bera ere; izan ere, administrazioaren jardunik ezaren ondorioz ezin da eragozpenik etorri kaltetuentzat.
3. Administrazio publikoek jarduera sailkatuen ingurumen-legezketasuna kontrolatzeko eta betearazteko duten betebeharra ez da eskumen kontu hutsa, baizik eta ordenamendu juridikoak egozten dizkien eskumen publikoak baliatzea, hain zuzen ere interes orokorra aldezteko eta ingurumen-legeditik eratorritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko.
4. **Beraz, arreta aipaturiko establezimenduak izan dituen irregulartasunetan jarriz**, adierazi behar dugu jarduera sailkatuen lizentziak funtzionamendu-lizentzia deiturikoak direla. Izan ere, adierazten dute baimena ematen duen administrazioak etengabe kontrolatu behar dituela halako instalazioak, harik





eta ixten diren arte; izan ere, etengabeko arriskua dago ingurumenari eragiteko.

5. Betekizun horiek ahalmena ematen diote Administrazioari baimendutako jardueran behar bezalako proportzionaltasunez esku hartzeko, eta, hala, baimen hori dutenei beharrezko neurri zuzentzaile eta egokitzailak ezartzeko, are ofizioz, jardueraren funtzionamendu zuzena bermatzeko eta bizilagun kaltetuei arazorik ez sortzeko.
6. Begi bistakoa da era horretako instalazioek, jarduera ez bada modu tekniko-juridiko egokian arautzen, gatazka larri bat sor dezaketela, eta halaxe sortzen ere dutela, beren jarduera egin behar duten ostalaritza-establezimenduetako titularren interes partikularren eta interes publiko orokorraren artean. Hain zuzen, instalazioen inguruan bizi diren bizilagunen intimitate eta segurtasunerako eskubidea da interes orokor hori, ezin baitzaie beren lasaitasuna asalatu, jarduera horien funtzionamenduak sortutako eragozpenengatik.
7. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, 64. artikuluan, eskumena ematen die tokiko administrazioei beharrezko ikuskapen-bisita guztiak egin ditzaten jarduera araudi teknikoarekin bat garatzen dela egiaztatzeko eta hirugarrenei eragozpenik eta kalterik ez sortzeko. Gainera, eskumen horietan oinarrituz, 64.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, jardueraren funtzionamenduan akatsak ikustean, alkateak epe bat emango dio jardueraren titularrari akatsak konpontzeko. Epe hori, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, ez da izango sei hilabetetik gorakoa. Areago, ingurumenari kalte larriak edo konponezinak egingo zaizkiola edo pertsona zein ondasunentzat berehalako arriskua dagoela sumatzeko arrazoi sendoak daudenean, prebentzio gisa, hautemandako irregulartasunak zuzentzeko beharrezko neurriak ezarri ahalko dira, are jarduera osorik edo partzialki eten ere, harik eta mehatxua edo arriskua sortzen duten inguruabarrak desagertzen diren arte.

Alabaina, gertaeren aurrekarietan aski egiaztatua geratu den moduan, Erandioko Udalak ez du halako neurririk hartu.

8. Edonola ere, zonako bizilagunek planteatu dituzten arazo zehatzen inguruan, nabarmendu behar da erakunde honek, **musika-ekipamenduek sortutako zarata-eragozpenei** dagokienez, askotan adierazi duela halako jardueretatik eratorritako eragozpenak konpondurik geratuko direla, baldin eta egiaztatzen bada lokalaren isolamendu akustikoa bat datorrela legez ezarritako betekizunekin, eta frogatzen bada soinu-iturriak, beren kalifikazio-txostenean behar bezala baimenduak, behar bezala ainguratuta eta zigilatuta daudela.

Alabaina, nahiz eta egiaztatu den lokalak baduela nahikoa isolamendu-maila eta hasiera batean instalatu direla behar bezala baimendutako soinu-ekipamenduen arauko mugagailuak, nabarmendu behar da, erakunde





honetan kexa honen antzeko egoerengatik izapidetu ditugun espediente ugarietan ikusi dugunez, lokal horietako soinu-ekipamenduen mugagailuak erraz manipulatu ohi direla askotan, eta, areago, establezimendu horietako titularrek potentzia handiagoko beste batzuk ipintzen dituztela horien ordez.

Horregatik, bizilagunek gehiegizko zaratarengatik jarritako salaketak jasotzen direnean, erabakigarria da bidezko neurketak eta egiaztapenak egitea, batez ere zarata gaez sortzen denean. Bestela, nekez eskatu ahalko zaie jardueraren titularrei ez dezatela gainditu instalazioa baimentzeko baldintza gisa ezarritako hots-igorpenen maila.

9. Egia da Erandioko Udalak birritan eman diela aukera bizilagunei neurketa horiek egiteaz arduratzen den enpresarekin harremanetan jartzeko.

Alabaina, erakunde honentzat harrigarria da Udalak proba horiek egiteko emandako epean bizilagunek jardueratik eratorritako zarata-eragozpenik ez salatu izana eta aldi hori amaitutakoan ostera ere behin eta berriz erreklamatzeari zarata-eragozpenak. Horrez gain, nabarmendu behar dugu aldi horretan bizilagunek kexak jartzen jarraitu dutela udalean, eta aurkeztutako salaketen ondorioz Udaltzaingoak egin dituen ikuskapen gehienetan egiaztaturik geratu dela musika-ekipamenduen soinu-maila gehiegizkoa dela eta musikaren bolumena jaisteko agindu zaiela arduradunei.

Egoera horretan, azpimarratu behar da Erandioko Udalak neurriak hartu behar zituela intzidentzia horiek hala ote ziren eta musika-ekipamenduen bolumena aldatzeko ote zegoen egiaztatzeko eta, hala badagokio, hori saihesteko.

10. Adierazi behar da ez dela aski era horretako jarduerak eskatutako isolamendu-maila betetzea eta soinu-ekipamenduen arauzko mugagailuak izatea, eta are baimendutako gehieneko mailak errespetatuz funtzionatzea, **ondoren lokaleko ateak eta leihoak zabalik uzten badira**. Halako kasuetan, musika eta era horretako jarduerak ohi duten beste edozein soinu-jarduera, hala nola jendearen arteko elkarrizketak, materiala herrestan eramatea, bai eta halako lokaletan ipintzen diren makinek sor ditzaketen zaratak ere, kontrolik gabe iriteten dira kanpora.

Halako eragozpenak saihesteko, nahitaezkoa da **lokal horietako ateak eta leihoak beti itxita** edukitzea. Hala uste du jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei oro har aplikagarri zaizkien arau teknikoak onesten dituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak; hain zuzen, 3.2.3 idatz-zatian aurreikusten du soinurik kanpora ez igortzeko, nahitaezkoa izango dela **lokalerako sarbide guztietan bi ate** ipintzea, itxitura automatikodunak, atarte haize-babes bat eratuz, eta ateak beti itxita egon beharko dutela, ahal izanez gero perpendikularrean.

Komeni da, orobat, **leihoak irekiezinak izatea**, eta soilik egunez ireki ahal izatea, garbiketa-lanetarako, jarduera itxita dagoela.





11. Aipaturiko establezimenduan hautemandako gabeziez gain, eztabaidagarria da Erandioko Udalak **urteetan herriko jaietarako baimena ematea zona horretan plataforma bat jartzeko, inolako kontrol administratiborik egin gabe.**

Orobat, zalantzan jarri behar da Udalak azken bi urteetan lizentziarik ez ematea bizilagun kaltetuek aurkeztu dituzten salaketa ugariengatik eta, hala ere, neurri administratiborik ez hartzea jaietan zehar plataforma hori instala dadin eta funtzionamendu irregularra izan dezan saihesteko.

12. Helarazitako dokumentazioan aipatzen denez, *"Las autorizaciones que se concedan para el desarrollo de las distintas festividades patronales que se celebran en la anteiglesia de Erandio, en concreto, las festividades de San Lorenzo y de San Agustín de Alzaga, requieren una regulación especial en algunos apartados que afectan a la salubridad e higiene en evitación o disminución de molestias a la ciudadanía."*

Edonola ere, beharrezkoa da gogoan izatea, nahiz eta oraindik ez den onartu era horretako kontuak arautuko dituen udal araudirik, Udala ezin dela inola ere geratu jaietan egiaztatu diren irregulartasun horien aurrean ezer egin gabe, eta are gutxiago, plataforma horrek sortzen dituen eragozpen larriak ikusita.

13. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzeari buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak 15. artikuluan ezartzen duenez, ikuskizun eta jolas-jardueretarako erabili nahi diren aldi baterako instalazio edo egiturak zein mugikor edo desmuntagarriak erabili ahal izateko, **aurrez udalak jardunbide berezi eta laburraren bidez emandako lizentzia beharko da.**

Aldi berean, 16. artikuluan ezartzen denez, **arauzko baimena beharko** da lokal edo instalazioetan egiten diren jardueretarako, *saltegirako udal lizentzian zehazten ez badira*, bai eta herri-bidean edo jendearentzako erabilera duten eremu zabaletan egiten diren jardueretarako, egitura desmuntagarriak erabiliz edo erabili gabe.

Aurrez azaldutakoa betetzen ez bada, 25. artikuluan argi uzten da administrazio-agintaritza aginpidedunek **edozein jarduera debekatu edo bertan behera utz dezaketela, berehala**, derrigorrezko baimenik ez dutenean, emandako baimenean jasotako eskakizunak aldatzen direnean, pertsona edo ondasunentzako benetako arriskua dagoenean, bai eta pertsonak eta ondasunak arriskuan jartzen dituzten desordena larriak gertatu edo aurreikusten direnean ere.

14. Areago, eskura ditugun datuetatik ondorioztatzen denez, plataforma hori zuzenean dago lotuta aipaturiko establezimenduarekin.

15. Izan ere, egiaztatuta geratu denez, establezimenduko soinu-ekipamenduak eta tabernaren atzeko atea erabiltzen dira; beraz, herriko jaietan egiten den **jardueraren instalazio lagungarri edo gehigarritzat** har liteke.





16. 2004ko apirilaren 29an onartutako udalerriko terraza eta hankabakarrei buruzko ordenantzak ezartzen du ostalaritzaren adarreko jarduera legeztatu baten **aldi baterako osagarri gisa balio duten behin-behineko instalazio finko edo mugikorrak** manu horretan eskatutako betekizunei lotu beharko zaizkiela.

4. artikuluan ezartzen du agintaritza eskudunak debekatu ahalko duela elementu lagungarriak instalatzea interes publikoak hala eskatzen duenean, oinezko ugari dabilenean, edo segurtasun, ikusgarritasun edo irisgarritasun arrazoiengatik. Debeku hori behar bezala arrazoituz beharko da, udal zerbitzu teknikoek egindako txostenaren bidez. Orobat, 7. artikuluan ere berariaz debekatzen du bide publikoan irudi- eta soinu-erreproduzigailuak ipintzea, hala nola musika-ekipamenduak, telebistak eta karaoke edo zuzeneko emanaldien moduko beste edozein.

Ordenantzaren 25. artikulua, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak arautzeari buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak bezala, adierazten du instalazioek **arauzko lizentziarik ez badute edo emandako baimenean** ezarritako baldintzak betetzen **ez** badituzte, udal agintaritzak **emanaldi horiek berehala bertan behera** uzteko eskatu ahalko duela.

Gainera, ezar litezkeen zehapenak jartzeaz gain, kendu egin ahalko da instalazioa, kautelaz eta berehala, eta are modu subsidiarioan, arduradunek agindutakoa betetzen ez badute eta ez badituzte eragindako kalteak konpontzen.

17. Arauzko baimena izanik ere, aurreko urteetan bezala, tokiko erakundeak argiro ezarri behar du zein diren era horretako instalazioek jaietan bete beharreko mugak, eta zehaztu egin behar ditu egiaz betetzeko beharrezkoak diren neurriak, ordutegia, neurri zuzentzaileak, soinu-mugak eta bestelakoak. Hori guztia, une oro bermatu ahal izateko jai-eremuaren inguruan bizi diren bizilagunek kalitateko eta soinu-asaldurik gabeko ingurumenaz gozatzeko duten eskubidea.

Horrez gain, modu horretara oreka bat lortu ahalko da jarduera horiek gure tradizio eta bizimoduekin bat etorri egin behar direla aldarrikatzen duen gure gizarteko alderdia defendatzeko.

18. Alabaina, ez da inon ageri Erandioko Udalak halako neurririk hartu duenik, eta horrek plataformaren funtzionamendu irregularra ahalbidetu du, bai eta aipaturiko ostalaritza-establezimenduaren funtzionamendu irregularra ere, arauzko kontrol administratiboak egin ez direnez gero.

19. **Kanpoaldean jarritako terrazaren inguruan**, adierazi behar dugu, urtero terraza jartzeko arauzko baimenak ematen badira ere, instalazio horrek une oro bete behar dituela baimenean ezarritako betekizunak eta 2004ko apirilaren 29an onartutako terraza eta hankabakarrei buruzko ordenantza ezarritakoa.

Ondorioz, inola ere ezingo da gairitu instalaziorako mugatutako zona, eta altzari guztiak kendu beharko dira funtzionamendu-ordutegia amaitu ondoren.





Oro har, ordutegia 09:00etatik 23.00etara izaten da, eta ordubete gehiago luza daiteke jai-bezperetan eta uda-garaian. Edonola ere, ordutegia une oro aldatu ahalko da, esanbidezko ebazpen bidez, soziologia, ingurumen edo hirigintzako inguruabarrak kontuan hartuz edo onar liteken baino zarata handiagoa ateratzen dela egiaztatzean.

20. Jarduerak berak ere bete beharko ditu jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuan ezarritako **ixteko ordutegiak**.
21. Adierazitakorekin bat, eta kontuan hartuta bizilagun kaltetuek aurkeztutako salaketa ugariak, Arartekoak ondorioztatzen du ez dela egiaztaturik geratu Erandioko Udala ikuskatzeko eta zehatzeko ahala baliatzen ari denik ordenamendu juridikoa betearazteko eta interes orokorra defendatzeko.

Areago, azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, areagotu egiten da Udalaren jardunik eza zonako bizilagunei eta, bereziki, kexaren sustatzaileei egiazko eragozpenak eragiten ari zaielako ustea. Izan ere, eskura ditugun datuekin aski egiaztaturik geratu da Udalak, kasurik onenean, ohartarazpen hutsak baizik ez dizkiela egin jardueraren arduradunei, ikusitako gabeziak batzuk zuzendu ditzaten, baina ez duela indarrean den ordenamendu juridikoaren arabera beharrezkoa den bestelako neurririk hartu, osasunerako eta kalitateko ingurumenerako eskubidea babesteko era horretako jardueren funtzionamendu irregularra pairatzen duten pertsonen.

22. Tokiko erakundeak inola ere ezin dira ezer egin gabe geratu ingurumenerako kaltegarriak diren egoerak ikustean, pertsonentzat edo ondasunentzat benetako kalteak noiz gertatu zain, eta ezin dute espedientea luzatu ere, lokalaren arduradunek jarduera legediari egokituko diotelako itxaropenez.

Beharrezkoa da Udalak arrisku-egoera amaitzeko esku hartzea, Udalak berak bidezko neurri zuzentzaileak hartuta edo zuzenean arduradunei neurri horiek har ditzaten aginduta.

23. Komeni da gogoraraztea Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, 2011ko urriaren 18ko Epaian, 'Martin Martinez Espainiaren aurka' kasuari buruzkoan, honako hau jasotzen duela: *"El domicilio es normalmente el lugar, el espacio físicamente determinado donde se desarrolla la vida privada y familiar. El individuo tiene derecho al respeto de su domicilio, concebido no sólo como un derecho a un simple espacio físico, sino también para el disfrute, con toda tranquilidad, de dicho espacio. La vulneración del derecho al respeto del domicilio no sólo se refiere a ofensas materiales o corporales, tales como la entrada sin autorización en el domicilio de una persona, sino también las lesiones incorpóreas como los ruidos, las emisiones, los olores y otras injerencias."*





Ondoren, honako hau gogorarazten du:

“La actuación de la Administración no sólo no debe limitarse a abstenerse de llevar a cabo tales injerencias, sino que tiene encomendado proteger al individuo frente a las ya mencionadas.”

lido horretan, jadanik Auzitegi Konstituzionalaren 119/2001 Epaian esan zen moduan:

“Una exposición prolongada a unos determinados niveles de ruido que pueden objetivamente calificarse como evitables, ha de merecer la protección dispensada al derecho fundamental a la intimidad personal y familiar, en el ámbito domiciliario, en la medida en que impidan o dificulten el libre desarrollo de la personalidad, siempre y cuando la lesión o menoscabo provenga de actos u omisiones de entes públicos a los que sea imputable la lesión producida”

24. Organo publiko eskudunak modu saihestezinean erabili behar du ordenamendu juridikoak ematen dion ahal-funtzioa, hirugarrenei eragozpenak edo kalteak sor diezazkioketen soinu-igorpenak prebenitzeko eta, hala badagokio, konpontzeko.

Horregatik, tokiko erakundeei dagokie neurriak hartzea soinu-iturriak hirugarrenen interes legitimoak dakartzkien eragozpen edo kalteak zuzentzeko.

25. Arartekoak uste du ezin dela denbora gehiagoan utzi eta onartu jarduera horretatik gertu bizi diren familiek era horretako egoera gogaikarriak jasan ditzaten.

Ez dugu ukatzen zaila dela instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko funtzioak betetzea, eta, alde horretatik, uste dugu oreka bat lortu behar dela merkataritza- eta zerbitzu-jarduera oparoaren eta bizilagunek dituzten eskubideen artean, hau da, atsedean hartzeko eta kalitateko eta soinu-asaldurik gabeko ingurumenaz gozatzeko eskubidearen artean.

Horregatik, beharrezkoa da Erandioko Udalak beharrezko errekurtsoak eta prozedurak ezartzea establezimendu horien aldirietan bizi diren pertsonen eskubideak –intimitatea, segurtasuna eta etxebizitzaren bortxaezintasuna– gauza daitezen lortzeko; izan ere, pertsona horiei ezin zaie beren lasaitasuna asaldu, merkataritza-establezimenduak eragindako eragozpenengatik edo tokiko erakundeek kontrolatu behar duten beste edozein jarduerarengatik.

26. Bestela, Administrazio eskudunek jarduera sailkatuak kontrolatzeko ezer egiten ez badute, besteak beste, erantzukizun administratiboak eta are penalak erator daitezke.





27. Azkenik, nahiz eta bizilagun kaltetuek aurkeztutako erreklamazioei ez erantzutearen inguruan eman genuen aurreko ebazpenean adierazitakoa errepikatzea izan, beste behin adierazi behar dugu Erandioko Udala behartuta dagoela **heritarrek** aurkezten dituzten eskaerei erantzun arrazoitu bat ematera, APEAJLren 42. artikuluekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikuluekin bat etorritik. Inola ere ez da beharrezkoa izango eskaera horiek abokatuen bulegoen edo aseguru-etxeen bitartez eginak izatea.

Gainera, informaziorako eta espedienteak eskuratzeko eskubidea zuzenean dago ordenamendu juridikoak jasotzen duen ekintza publikoarekin loturik, eta jarduteko aukera ematen dio edozein herritar edo elkarteri, zuzeneko interesa egiaztatu beharrik izan gabe, hirigintza eta ingurumen arloko legedia betetzen dela ziurtatzeko. Horrek esan nahi du edozein unetan jakin dezaketela espediente administratiboen izapideak zertan diren eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzaketela (35 a) artikulua), bai eta amaitutako espedienteen parte diren agirien kopiak ere —Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37.8 artikulua (HAAPEAJL)—.

Aztergai dugun kasuari dagokionez, informazio-eskaerak ingurumen-informazioaren kalifikazioa izan dezake, ingurumen arloan informazioa eskuratu, parte hartu eta justizia lortzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 2.3.d) artikuluan jasotako eran

Ingurumen-informaziorako sarbidea modu azkar eta lehentasunezkoan egin behar da. Legeak hilabete bateko epea ezartzen du ebazteko, erantzuna eman behar duen erregistroan eskaera jasotzen denetik, beste hilabeteko luzapen esanbidezkorik izan ezean.

Informaziorako sarbidearen kasuan, erantzun administratiboa berehalakoa izatea funtsezko premisa da ingurumen arloan parte hartzeko eta justizia lortzeko gainerako eskubideak baliatu ahal izateko.

Erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du zein garrantzitsua den ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea izatea beste eskubide batzuk baliatzeko orduan, hala nola: herritarrek parte hartzeko eskubidea edo administrazio on bat izateko eskubidea. Ildo horretan, Arartekoak, 2010eko Eusko Jaurlaritzarentzako txostenean gomendio orokor bat sartu zuen gardentasuna eta dokumentazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruz. Bereziki, ingurumen informazioa eskuratzeari buruz.

Horregatik, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hauxe da gure





GOMENDIOA

Ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 64. artikularekin bat etorritik, egin daitezela **beharrezko ikuskapen teknikoak eta bidezko diren neurketak** jarduerak sortzen dituen zarata eta bibrazioen egoera zehatza zein den jakiteko, eta lortutako emaitzak oinarri direla, Erandioko Udalak har ditzala egoki diren neurriak jardueraren funtzionamendua bideratzeko, indarreko legedian ezarritako parametroekin bat etorritik, batez ere **lokaleko soinu-ekipamenduei, ate eta leihoei, jardueraren ordutegia betetzeari eta bestelakoei dagokienez.**

Era berean, tokiko erakundeak sakonki azter dezala zer aukera dauden datozen urteetako herriko jaietan plataforma hori ipintzeko, eta horretarako baimena emanaz gero, berma dezala, fede emanaz, betetzen direla indarreko araudian ezarritako manuak eta saihestu ditzala inguruko bizilagunei egiten zaizkien kalteak.

Kanpoaldeko terraza egokitu dadila arauzko baimenean ezarritako betekizunetara, eta bete ditzala 2004ko apirilaren 29an onartutako udalerriko terraza eta hankabakarrei buruzko udal ordenantzan ezarritako manuak.

Azkenik, erantzun arrazoitu bat eman diezaiela bizilagun kaltetuek aurkeztutako salaketei, eta erreklamazio-jartzaileak informa ditzala aurkeztutako salaketen inguruan hartutako udal neurrien inguruan.

